

AZKOITIA / Udal Liburutegi berriaren irekitzea

Eraikina egokitzeko lanen aurrekontua 300.000 euro igo da, hezetasunagatik lurrian sortutako arazoak direla eta

Irene Elorza

Aizkibel Udal Liburutegiaren lanak atzeratu egin dira zoladurarekin izandako arazoa dela-eta. Trailerako zabaldua behar luken eraikina datorren urtarrilean inauguratzeko asmoa du Udalak.

Eraikina egokitzeko lanetan egurrezko lurra jartzea aurreikusi zuen Udalak, baina azpiko porlanak ez zuen izan lehertzeko denborarik eta egurra zeramikagatik ordezkatzeko erabaki dute.

Lanak abendurako bukatuta egongo direla aurreikusten badute ere, barruko material guztiaren garraioa eta instalazioak denbora gehiago eskatuko du eta horregatik egingo dute inaugurazioa urtarrilean.

Azken fasean daude lanak, hau da, komunak, argindarraren instalazioa eta margotze lanak besterik ez dira falta.

Bitartean, liburutegi zerbitzua Kultur Etxeko hirugarren solairuan dago jarrita. Astelehenetik ostiralera 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara egoten da zabalik behin behineko liburutegia.

Espazioa aprobeztatzuz

Modu irregularrean zizelkaturiko kutxa baten formako eraikinak hartuko du liburutegi berriaren handitzea. Horri esker, liburutegiaren espazio erabilgarria %30 handiagoa izango da. Gainera, eraikin publiko honek aurrez zituen irisgarritasun arazoak ere konpondu egingo dira egokitzeko lanekin.

Trenbideko trabesen egiturak gogora ekartzen du eraikinaren historia, ia-ia trenbidea desegin eta trabes zaharrak geltokiaren ondoan pilatu izan balira bezala, adierazi du Juan Beldarrainek, proiektuaren arkitektoak. Handitzearen helburua Aizkibel liburutegi a trenaren bulebarraren hasieraren inguruarekin lotzea da.

Eraikinaren inguruan libre geratzen den espazioan, batetik lorategi estalgarri bat egiteko asmoa dute, eraikina parkean integratzeko; eta bestetik, zenbait aldaketa egitea zoladuretan, handitzearen geometria irregularra bulebarraren geometriara egokitzeko.